

**bai**

ziurtagiridunen aldizkaria

# JOXEAN KEREJETA

SASKI BASKONIAKO PRESIDENTEA

“Kopa Gasteizen jokatzea  
erakusleho bikaina da  
klubarentzat eta hiriarentzat”

Argazkia: Baskonia

ziurtagiriaren elkartea



baieuskarari.org

10. alea  
2013ko otsaila



Rober Gutiérrez  
Zuzendaria

 @robergutierrez

## ETORKIZUNA ERAIKITZEN ARI GARA

Aurtengo urtariletik ekainera bitartean, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen Hausnarketa Estrategikoa (2013-2015) zehaztuko da. Ez da hutsetik abiatuko, bere garaian “Ziurtagiriaren Elkartearen estrategia, 2009-2012” onartu baitzen. Bertan, Ziurtagiriaren Elkartearen misio, balio eta ikuspegia definituta daude. Halaber, 2009an, Berrikuntza Agendaren definizioa egin zen eta estrategian egokitzapenak txertatu ziren.

Horrela bada, Hausnarketa Estrategikoaren bitartez, egoera zertan aldatu den aztertuko da, batetik. Bestetik, aurrera begira ezarriak ditugun helburu, ildo eta proiektuetan zer-nolako aldaketak edo-eta egokitzapenak egin beharko genituzkeen ere landuko da.

Interes taldeak ere identifikatu dira eta horiek hausnarketa prozesuan parte hartzera gonbidatuko dira (zuzendaritza, bazkideak, administrazioak, Elkartean lanean ari diren pertsonak, etab.).

Zuek bertan izatea nahi dugu, zuen ekarpena jaso nahi dugu oso baliagarria izango baita Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen etorkizuna eraikitzen ari garen unean.

### Argitaratzailea:

#### Ziurtagiriaren Elkartea

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain T. 943592148

1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona T. 0559255041

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo T. 902430026

Pedro Asua, 27 beheka - 01008 Gasteiz T. 945215196

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa

31014 Iruñea T. 902430026

[www.baieuskarari.org](http://www.baieuskarari.org)



@baieuskarari



[www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria](http://www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria)



[www.baisarean.org](http://www.baisarean.org)

### Zuzendaria:

Rober Gutiérrez

### Kudeaketa eta erredakzio-taldea:

Ziurtagiriaren Elkartea

### Diseinua eta maketazioa:

BIT&MINA

### Argazkiak:

Ziurtagiriaren Elkartea, Euskal Moneta

Elkartea, Badu Bada, Euskalapps, El

Correo, Baskonia, Quintas, Erika, Goiena,

Euskal Herria Esnea Kooperatiba

### Inprimatzailea:

Leitzaran

### Banaketa:

Ziurtagiriaren Elkartea

### Lege gordailua:

SS-497-2010

Aldizkari honetan publizitatea sartzeko idatzi [info@baieuskarari.org](mailto:info@baieuskarari.org) helbidera edo deitu 943592148 telefono zenbakira.



# ENPRESAREAN-EN ETORKIZUNA EZTABAIDAGAI BADU BADA ERAKUSKETAN

Euskararen iraupenaz, mundu eleanitzaz eta hizkuntzen arteko bizikidetzaz hausnartu eta eztabaidatzeko gunea da Badu Bada erakusketa. Donostiako San Telmo museoan bisitatu daiteke otsailaren 17ra arte. Bitarte horretan, ekin-tzaz beteriko egitaraua osatu dute antolatzaileek.

Aurkezpen ekitaldian jakinarazi zutenez, Badu Bada erakusketak bozgorailu izan nahi du, “edonork hizkuntzen iraupe-naren eta bizikidetzaren inguruan esateko duena adierazi ahal izango baitu”.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek erakusketak eskaintzen duen aukera baliatu nahi du, eta joan den urrian antolatu-tako Enpresarean egitasmoa eramango du San Telmora. Hain zuzen, orain arteko ibilbidearen errepasoa egin eta erreferen-tziazko gonbidatuekin Enpresarean beraren, eta euskarazko



produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen arteko elkarlanaz hitz egiteko saioa antolatuko du.

Hitzordua otsailaren 12an izango da, 18:00etatik aurrera. Bi-tartean, Badu Badak ateak zabalik izango ditu San Telmo mu-seoan edota [www.badubada.com](http://www.badubada.com) webgunean.

## EUSKALAPPS.NET: EUSKARAZKO APLIKAZIOEN ONLINE DENDA



«2012 Mobile Trends For CPS Professionals» txostenaren arabera joan den ur-tean telefono mugikorretarako eta table-tetarako milioi bat aplikazio sortu ziren.

Horrela, The Movie Virtual enpresak eus-karazko aplikazioak biltzen dituen online denda ([www.euskalapps.net](http://www.euskalapps.net)) sortu, eta urtarilaz geroztik telefono mugikorre-tarako euskaraz landutako aplikazioak garatzen ditu.

Webgune berriak plataforma anitzeko sarrera izango du mugikorraren aplika-zioetara (IOS, Android, Windows Phone, Meego, BlackBerry...) eta besteak beste, jokoak, ipuinak, musika eta eus-kara ikasteko aplikazioak bilduko ditu,

horietako batzuk doakoak eta beste batzuk ordaindu beharrekoak.

Plataforma berriak eskaintzen dituen abantailen artean, nabarmentzekoak dira egileen esku jarri dituela erreminta zein interfazeetarako sarbideak, modu horretan sareko aplikazioak programat-zeko aukera emanez. Era berean, gara-penean diharduten pertsonen arteko harremanak bideratzeko gunea zabaldu dute webgunean bertan.

**elkar libbuk**  
euskaraz dakien eReaderra  
elkar-en eskutik



[elkarlibbuk.elkar.com](http://elkarlibbuk.elkar.com)  
[www.elkar.com](http://www.elkar.com)

**elkar**



# MANAGEMENT ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA UZTARRI BEREAN

Xabier Erize nafar soziolinguista da. Zazpi urtez (2004-2011), Nafarroako Kutzaren Hizkuntza Garapena nahiz Gizarte Erantzukizuna arloetako sortzailea eta zuzendaria izan da, eta azken aldian *Management*-a eta hizkuntza plangintza elkartzeko proposamena lantzen dabil.

*Management*-a zer den galdetuta, enpresa eta erakundeen zuzendaritzaz arduratzen den diziplina gisa aurkeztu digu. “Erakunde bateko zuzendaritzak eta arloz arloko arduradunek elkarrekin duten jakintzen multzoa da”. Normalean, hizkuntzak enpresan txertatu nahian ibili bada euskalgintza, oraingoan Erizek alderantzizko bidea proposatzen du: aztertu enpresa munduak zer erakusten digun hizkuntza-plangintzarako. Nafar soziolinguistaren iritziz, *management*-eko kontzeptu nagusiak “oso erabilgarriak” lirateke hizkuntza-plangintzan.

Inspirazio iturri oparoa dela dio, “baina, noski, errezetarik ez duela ematen” argitu du. Bere iritziz, hizkuntza-plangintzara, *management*-ak egiten duen ekarpenik nagusia “bezeroak/herritarrak erdigunean jartzea eta bere nahiak eta beharrak” aintzat hartzea da. Horretarako, batetik, ezinbestekoa da “herritarren nahiak eta balio linguistikoak ikertzea”, eta bestetik, ikuspegi aldaketarako prestutasuna agertzea, “geure buruari begiratzuz eta galdetuz, ez bakarrik kanpoko faktoreei”.

Hutsunez ere aritu da. *Management*-aren kontzeptuak hizkuntza-plangintzan aplikatu ahal izateko, *management*-aren eta soziolinguistikaren arteko elkarlana zabaldu behar dela dio. “Bi norabidetan egin beharreko ekarpena litzateke: alde batetik, hizkuntza-plangintza sustatzen duten eragileek *management*-era gerturatzea eta bereetik edatea; eta, bestetik, *management*-eko adituek haien ezagutzak hizkuntza-plangintzara ekartzea”.

Bide beretik, soziolinguistikan jadanik zeuden antzeko kontzeptuak berreskuratu behar direla dio; besteak beste, hizkuntza-hautaketa (*language choice*) edota euskarak abantaila kualitatiboak bilatzea erdararekiko. Eta hemen, Jose Maria Sanchez Txepetx hizkuntzalariak bere garaian nabarmendu zituen berdintasunaren balioa edo tipo linguistikoen optimizazioa.

Edozein kasutan, Xabier Erizek *management*-a eta hizkuntza-plangintza elkartzeko egindako lanaketa hausnarketara bideratuta dago. Eta hausnarketa horretan hainbat galdera aieratzen ditu: zergatik “erosi” beharko nuke euskara? Euskarak produktu- ala bezero-orientazioa darama gaur egun? Zer baloratzen dute euskararen bezeroek? Zer nahi dute euskararen erosten dutenean? Zergatik ez dute erosten euskararen bezero ez direnek? Zein da euskararen abantaila konpetitiboa? Zein da euskararen diferentziazioa?



“*Management*-aren zeregina desiragarria dena posible bihurtzea eta errealitatean gauzatzea da”

Merkatu orokorrera ala segmentu fokalizatu batzuetara bideratu behar da euskararen sustapena? Zer egin behar du euskalgintzak euskararen merkatu-kuota (jarreretan, ezagutzan eta erabileran) berriro hazkunde zikloan jartzeko?...

Motzean, esaldi bakarrean laburtu du *management*-aren zeregina: “desiragarria dena posible bihurtzea eta errealitatean gauzatzea”. Hau da, balioak eta ekintzak lotzea, hizkuntza-plangintzak bilatzen duen bezalaxe.



Argazkia: Baskonia

# JOXEAN KEREJETA

## Saski Baskoniako presidentea

Esne-gozotan dabil azken bolada honetan Joxean Kerejeta (Lazkao, 1957) Saski Baskoniako presidentea. Zan Tabak aulkitxoan denetik taldeak gora egin du nabarmen, garaipenak pilatuz. Hori gutxi balitz, otsailaren 7an Endesa Ligako Kopa jokatu da Buesa Arenan eta Gasteiz erakusleihu bikaina izango da kirol ekitaldia zuzenean jarraitzera etorriko diren 700 komunikabideen aurrean. Gainera, Deportivo Alaves ere bikain ari da bigarren mailara itzultzeko ahaleginean. Euskara, kirola, enpresa, kudeaketa, eta abar izan ditugu hizpide Saski Baskoniako presidente karguan 25 urte bete berri dituen Lazkaoko enpresa-gizonarekin.

**Hasteko, kirol arloa. Caja Laboral Baskonian entrenatzaile aldaketa mesedegarria suertatu dela dirudi. Azken emaitzen irakurketa egitea baino ez dago.**

Bai, bai, emaitzek ez dute gezurrik esaten. Orain arte 18 partida jokatu ditugu eta lehena galdu bagenuen ere –elkarrizketa urtarilaren 23an egindakoa da. Urtarilaren 25ean Caja Laboral Baskoniak Buesa Arenan Barçaren aurka Top16ko partida galdu zuen eta 17 garaipeneko bolada eten–, beste guztiak irabazi ditugu bata bestearen atzetik. Maila profesionalean, kirol jarduera edozein delarik ere, marka hori lortzea benetan zaila da.

**Zan Tabak ez zen adituen kinieletan sartzen, eta neurri handi batean, hura ekartzea sorpresa handia izan zen. Zer eman dio Tabakek taldeari?**

Gauza asko aldatu ditu, baina batez ere lasaitasuna ekarri du. Taldeari presioa kendu dio. Maila taktikoan, berriz, defentsako sistema asko aldatu ditu, eta taldeak hobera egin du. Horixe nabarmenduko nuke.

**Garaipen bolada honetan entrenatzaileak bere esku-hartzea izango du, baina jokalariek zertan aldatu dute bere jarduna? Zer eskatu zenien entrenatzaile aldaketa erabaki zenutenean?**

Ezertxo ere ez. Jokalariekin apenas hitz egiten dut halako kontuetaz. Hori entrenatzailearen ardura da. Baina egia da jokariengan aldaketa sumatu dela. Duskok (Ivanovic) Baskonian lan izugarria egin du, denbora luzean gainera. Azkeneko hilabeteetan, ordea, taldea ez zebilen batere fin, jokoa ez zen ona. Jokalariak buru-makur kantxaratzen ziren, batere konfiantzarik gabe.

**Tabakekin jokalariek bere maila berreskuratu dute, oso denbora tarte gutxian gainera.**

Maila oneko jokalariak dauzkagu, eta haien jokoa ez zetorren bat daukaten

# “Taldeak jokoa hobetu du eta zaletuak ilusioz gainezka ditugu. Orain suertatuko zaizkigun arazoei irtenbide egokia ematea izango da erronka”

kategoriarekin. Orain konfiantzaz ari dira; entrenatzailea minutuak banatzen ari da, eta jokalariek badakite azkar baino berandu bere aukera izango dutela. Minutuak banatuta, taldeak freskotasunean irabazi du, eta astean bi partida jokatzen dituen talde batentzat funtsezkoa da hori.

## Zein dira denboraldi honetarako jarri dituzuen helburuak.

Ez naiz helburuak zehaztearen zale. Taldeari lehiakorra izateko eskatzen diot, eta sekula ez galtzeko ilusioa. Hortik aurrera lesioekin eta abarrekin zortea badaukagu, tituluen borrokan izateko gaitasuna daukagu. Eta noski, tituluren bat baldin badator, ongi-etorria izango da. Baina une honetan nahiago dut horretan ez pentsatzea. Taldeak aldarte hobia du eta joko mailan gora egin du, zaletuak ilusioz gainezka ditugu, baina bidea zaila eta luzea izango da. Hori izango da gure erronka, bidean suertatuko zaizkigun arazoei irtenbide egokia ematea.

## Otsailaren 7an Kopa jokatuko da Buesa Arenan. Guztia prest?

Halako txapelketak antolatzen eskarmentu handia daukagu. Egia da egun gutxitan lan handia egin behar dela, baina gogotsu gaude. Batez ere klubarentzat eta hirientzat oso garrantzitsua delako halako txapelketa bat antolatzea.

## Halako kirol ekitaldi batek zein onura ekartzen dizkio klubari?

Baskoniarentzat oso garrantzitsua da. Kontuan izan pabiloia berria dela, eta halako txapelketek izen ona emateaz

gain, gurea bezalako pabiloia erabilgarria dela azaltzeko balio du. Kanpotik zaletu asko etorriko dira, eta komunikabideak ere 700dik gora izango dira.

## Eta hiriari zer ekarri diezaioke?

Lau egunetan zortzi mila bisitari inguru izango ditugu hirian, eta jatetxe, hotel eta komertzioetan kontsumoak gora egingo du nabarmen. Krisi garaian, injekzio ekonomiko garrantzitsua izango da. Eta gero, irudiaren kontua dago, gure hiria munduko telebista guztietan agertuko baita. Erakusleho bikaina izango da.

“Zan Tabakek gauza asko aldatu ditu; defentsa lana hobetu du, baina batez ere lasaitasuna ekarri du eta taldeari presioa kendu dio”

## Zenbat bilera behar izan dituzue Kopa Gasteiza ekartzeko?

Halakoetan sukalde lana handia izaten da. Eta ez bakarrik ACBren; instituzioak, babesleak... erabateko adostasuna lortu behar dugu. Ilusioz ekin genion, eta badakizu esaera zaharrak zer dioten, gustuko lekuan ez dela maldarik izaten.

Kiroletik aldentu gabe, baina futbolera jauzi eginez. Saski Baskoniak Deportivo Alaves zuzentzen du 2011 urtea gerortik. Hemen ere aitzindariak izan za-



Argazkia: Baskonia

rete, orain arte futbol taldeek saskibalo sekzioak osatzen zituztelako, eta zuen kasuan, alderantziz izan da.

Hala da, bai. Kasu honetan, ordea, gure esku-hartzea instituzioek eskatuta heldu zen. Momentuz, pozik gaude; arazo ekonomikoa iraultzen ari gara, eta kirol arloan, Bigarren B mailako gure multzoan sailkapeneko lehenengo postuan gaude.

## Alavesena epe luzeko egitasmoa da? Helburua zein izango litzateke, Lehen Mailara itzultzea?

Bigarren B maila oso gogorra eta lehiakorra da. Epe laburrean helburua bigarren mailara igotzea da, eta aurrean lortzen badugu, hobea. Epe luzera, ikusiko da. Premiazkoena klubak dituen arazo ekonomikoak zuzentzen joatea

da. Lorpenak iritsiko dira, iritsi behar badute, baina bitartean lanean jarraitu behar dugu.

**Saski Baskonia Alaves kudeatzea zertan izan daiteke mesedegarri futbol taldearentzat?**

Gure lan-taldeak esperientzia handia du kirol egiturak kudeatzen, eta esperientzia eta egitura hori Alavesen zerbitzura jarri dugu. Alavesek abantaila hori du,

“Saski Baskoniako lan-taldeak esperientzia handia du kirol egiturak kudeatzen, eta esperientzia eta egitura hori Alavesen zerbitzura jarri dugu”

eta orain Alavesek baliabide ekonomiko gehiago dauzka bere mailako beste taldeekin lehiatzeko.

**Kirol kudeaketa beste esparruetara eramanez, euskararen esparrura hain zuzen, zein kudeaketa mota beharko luke euskarak normalizaziorako bidean aurrera pausoak eman ditzan?**

Profesionala, zalantzarik gabe. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartean egiten duzuen lana eredugarria da zentzu horretan. Eta lan horretan sakondu beharra dago, hori baita bidea. Euskarak aurrerapauso itzelak eman ditu, baina ez da komeni lokartzea, lan handia dago egiteke.

**Kirol egituretan ohituta zaudete hizkuntzak kudeatzen. Zein da Baskonian gai-**

**lentzen den irizpidea? Eta euskarak zein leku du?**

Ez daukagu irizpide finkorik. Urtetik urtera aldatu egiten da, entrenatzai-learen arabera izaten da. Dusko Ivanovic-ekin, esaterako, guztia gaztelaraz egiten zen. Zan Tabak-ek, aldiz, ingelesa eta gaztelera tartekatzen ditu. Jokalarien jatorria faktore garrantzitsua izaten da lanerako hizkuntza hautatzerakoan.

**Eta euskarak zein leku du?**

Klubean euskararen presentzia handia da, baina kantxan apenas du lekurik. Momentu honetan hemengo jokalaria bakarra daukagu, eta euskaraz badakien arren, eta zenbait elkarrizketa euskaraz eman dituen arren, horretara mugatzen da.



Argazkia: El Correo

(es)

Jugar la Copa en Vitoria-Gasteiz es un escaparate tanto para el club como para la ciudad

Se le nota contento al presidente del Saski Baskonia Joxean Kerejeta (Lazkao, 1957). Los buenos resultados del equipo tras la llegada de Zan Tabak al banquillo han traído la estabilidad necesaria, y en Vitoria-Gasteiz todos tienen la mirada puesta en la Copa que se disputará en el Buesa Arena entre el 7 y el 10 de febrero. Una cita que seguirán más de 700 medios de comunicación y que proyectará tanto al club como a la ciudad. Por si fuera poco, el Deportivo Alavés lidera la clasificación de su grupo en la Segunda B.

Kerejeta, que tiene fama de buen gestor, afirma que el euskera necesita una gestión profesional y de calidad en aras de su normalización. Y aunque asegura que nuestra lengua ha dado pasos de gigante, no conviene dormirse en los laureles.

Inpresioa daukat entrenatzaile euskaldun askok gaztelerara jotzen duela jokalariekin teknikaz eta taktikaz hitz egiteko. Kirol hiztegiak beharrezkoak direla uste dut egoera iraultzeko, eta noski, entrenatzaileen partetik euskararekiko konpromisoa. Konpartitzen duzu analisia?

Bai, egia da. Baina hori ez dut uste klubetan lana denik, federazio eta instituzioek bideratu beharrekia dela iruditzen zait. Haien ardura da. Klubetako arduradunok akuilu lana egin dezakegu, baina bakoitzak bere etxean, bere klubean. Erantzukizuna, zentzu horretan, bestena da.

**Saski Baskoniak eta Alavesek Bai Euskarari Ziurtagiria daukate. Zein ekarpen egiten du Ziurtagiriak zuen klubetan?**

Gure taldeak euskararekiko konpromiso sendoa du, eta Ziurtagiriak konpromiso hori sendotzen laguntzen du. Konpromisoa, gainera, epe luzekoa da, hemen jarraitzen dugun bitartean, behintzat, euskararen alde urratsak emateko prest gaude.

**Eta alderantziz, zein ekarpen egin diezaiokezue euskarari?**

Euskarari duen garrantzia ematea, hala komunikabideetan nola eguneroko lan jardunean. Hori da gure konpromisoa, eta horri eusten diogu. Bestalde, euskararen esparruan eta euskararen presentzia hobetzeko irits daitezkeen edozein proposamen aztertze prest gaude.



Argazkia: Quintas

Saski Baskoniak euskararekiko duen politikagatik zenbait kritika jaso dituzue: webgunean ez daude eduki guztiak euskaraz, bazkideei bidaltzen diezuen aldizkarian gaztelera lehenesten da... Horren aurrean bestelako dinamikak martxan jartzea aurreikusten duzue?

Dinamika berriak abian jartzeko prest gaude, lehen ere esan dizut. Edozein modutan, Saski Baskoniak euskararekiko duen jarrera egokia dela iruditzen zait. Kritikak hor daude, beti egongo dira gainera. Zenbaitentzat ez da nahikoa izango egiten duguna, eta nahiko dute gauzak bere modura egitea. Edozein kasutan, uste dut orain arte euskararen alde lanean jardun dugula, eta etorkizunean ere jardungo dugula.

“Euskararen alde dinamika berriak abian jartzeko prest gaude. Orain arte euskararen alde lanean jardun dugu, eta etorkizunean ere jardungo dugu”

(fr)


Participer à la Coupe à Vitoria-Gasteiz est une vitrine tant pour le club que la ville

Le président de Saski Baskonia Joxean Kerejeta (Lazkao, 1957) est heureux. Les bons résultats de l'équipe après l'arrivée de Zan Tabak a apporté la stabilité nécessaire et à Vitoria-Gasteiz tout le monde se tourne vers la Coupe du Roi qui aura lieu au Buesa Arena entre le 7 et le 10 février. Un rendez-vous suivi par 700 médias. En plus, le Deportivo Alavés est le leader du classement de son groupe en Second B.

Kerejeta, qui a une image de bon gestionnaire, affirme que la langue basque a besoin d'une gestion professionnelle et de qualité. Même s'il souligne que notre langue a fait des avancées gigantesques, il ne faut pas en rester là.

# ELIKA: elikagaien segurtasunerako bermea

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2001 urtean Elika Fundazioa sortu zuen, elikagaien segurtasuna elikakate osoan bermatzeko helburuarekin. Orduraz geroztik, Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa elikagaien segurtasunaren baitan dauden arlo guztietan eragiten du modu integralean, jatorrizko ekoizpenetik kontsumitzaileeraino dagoen bidea bermatuz.



Elikan, batez ere, bost zerbitzu hauek eskaintzen dituzte:

**1. Arriskuen ebaluazioa;** oinarria arriskuak saihestea da, eta helburua, euskal elikakatean sor daitezkeen arriskuei buruz ahalik eta ezagutza zabalena lortzea.

**2. Elikagaien segurtasun globala;** administrazioari nekazaritza arloko elikagaien segurtasuna areagotzeko politikak bideratzen laguntzea du xede.

**3. Zaintza teknologikoa;** Elikagaien Segurtasunaren esparruko albisteak eta berriak ezagutzeko helburua du. Erreminta baliagarria da, lan-esparruetan sortzen diren ezagutza hedabideetan, webgunean, ELIKABerri buletinean edota sare sozialetan gizarteratzeko.

**4. Planifikazioa eta ikerketa;** planifikazioa Europako Sareetan parte hartzeko, bertan definitzen baitira Elikagaien Segurtasunari buruzko ikerketa-estrategia partekatuak. Ikerketa horiek ematen di-

tuzten emaitzak Euskal Autonomia Erki-  
degoan garatzen dira.

**5. Elikakatea;** sei azpiataletan banatzen da: nekazaritza, animalien elikadura, abeltzaintza, arrantza, elikagaien industria eta kontsumitzailea. Arlo honetako jardueren helburua da elikagaien sektorean segurtasuna bultzatzea.

## Kontsumitzailea protagonista

Elikak badu bigarren zutabe bat, kontsumitzaileei bideratua. Ekoizle edo administrazioari eskainitako zerbitzuekin batera, kontsumitzaileoi bideratutako beste horrenbeste zerbitzu eskaintzen ditu. Zerbitzu bakoitzak bere zeregina du, eta nagusienak honako hauek dira:

**1. Webgunea;** kontsumitzaileoi sortzen zaizkigun zalantzak argitzeko.

**2. Wiki Elika;** iaz abiarazitakoa da. Elikagaien Segurtasunaren esparruko nolabaiteko "Wikipedia" da, eta egun Elikagaien Segurtasunari buruzko 250

hitz baino gehiago ditu. 2013an zehar hitz berriei eguneratzen joango dira.

**3. Ikaseliika;** Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako hezkuntza-ataria da, Elikagaien Segurtasunari buruzko multimedia-materialekin eta material interaktiboarekin osatzen da.

**4. Infokontsumitzailea;** buletin elektroniko hilabetekaria, kontsumitzaileontzako egungo albisteak dituen. Harpidetza doan egin daiteke.

**5. Elikagaiak etiketatzeari buruzko mikrositea;** nahitaezko eta aukerako etiketei buruzko informazioa ematen du. Halaber, elikadurako sektore bakoitzari ezartzen zaion etiketatze zehatzari buruzko informazioa jasotzen da. Izan ere, elikagaien etiketak dira elikagaien ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko komunikabide nagusia, eta euren helburua da bermatzea produktu horien edukiari eta osaerari buruzko informazio osoa ematen dela, kontsumitzaileen osasuna (intolerantziak eta alergia dituzten

pertsonak, diabetikoak...) eta interesak babeste aldera.

**6. Elikak erantzuten du;** kontsultak egiteko postontzia da. Bertan, edozein kontsumitzailek egin ditzake Elikagaien Segurtasunari buruzko galderak.

**7. Jardunaldi eta tailerrak;** kontsumitzaileentzat hainbat gairen inguruko prestakuntza-jarduerak martxan dituzte; besteak beste, Elikagaien Segurtasunaren eragina elikakatean, alergenok kudeatzea, ingurumen-arriskuak ebaluatzea, arriskuak jakinarazteari, etiketatzeari eta abarri buruzko tailerrak, eta on-line prestakuntzako moduluak higie-neaz, elikadura-zuzenbidez, etab.

### Euskararekin konpromisoa

Elikak, Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioak, elikagaien segurtasuna du xede nagusi. Zeregin horretaz haratago, ordea, euskararekiko konpromiso sendoa azaldu du azken urteotan, batez ere 2005 urteaz geroztik. Urte horretan euskararen erabilera gehitu eta finkatu asmoz hainbat erabaki hartu zituen erakundeak.

Horrela, 2006. urtean Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu zuen, hain zuzen, Euskararen bidean maila kreditatzen du Elikak. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearekin hitzartutako konpromisoaren ondorio dira euskararen normalizaziorako bidean urtero emandako urratsak. Urtetik urtera areagotuz joan

direnak, eta egun, eskaintzen dituen zerbitzu guztiak eta kaleratzen duen informazio guztia bi hizkuntza ofizialen presentzia bermatzen duena.



(es)

ELIKA: garantía en la seguridad alimentaria

El departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca creó la Fundación Erika en 2001, con el objeto de garantizar la seguridad en la cadena alimentaria. Desde entonces, la Fundación Vasca para la Seguridad Agroalimentaria incide de forma integral en todos los aspectos relacionados con la cadena alimentaria, desde todo el proceso de producción hasta que llega a manos del consumidor.

Erika ofrece cinco servicios: prevención de riesgos, seguridad alimenticia global, cuidado tecnológico, planificación e investigación y cadena alimentaria. Además ofrece un sinnúmero de actividades dirigidas al consumidor.

Erika posee el Certificado Bai Euskarari.



Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunarako Euskal Fundazioa  
Fundación Vasca para la Seguridad Agroalimentaria

(fr)

ELIKA: garantie de la sécurité alimentaire

Le département de l'Environnement, de Planification territoriale, d'Agriculture et de Pêche a créé la Fondation Erika en 2001, dans le but de garantir la sécurité dans la chaîne alimentaire. Depuis, la Fondation Basque pour la Sécurité Agroalimentaire influe sur tous les aspects en relation avec la chaîne alimentaire, depuis la production jusqu'à qu'aux consommateurs.

Erika offre cinq services : la prévention des risques, la sécurité alimentaire globale, la surveillance technologique, la planification et investigation et la chaîne alimentaire. De plus, Erika offre beaucoup d'activités pour les consommateurs.

Erika a le Label Bai Euskarari



TALLERES  
**MITXELENA**, S.COOP.

Eziago poligonoa, 21 • Hernani, Gipuzkoa  
Tel.: 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816  
info@talleresmitxelena.com  
www.talleresmitxelena.com

# IBAN ARANTZABAL, GOIENAKO ZUZENDARIA ETA HEKIMEN PROIEKTUAREN PRESIDENTEA

Iban Arantzabal (Elgeta, 1975) Goienako zuzendari nagusia da urritik. Era berean, euskal hedabideen elkarlana bideratzeko sortu berri den HEKIMEN proiektuaren presidente ere bada. Goienari buruz, eta oro har, euskal komunikabideei buruz hitz egin dugu berarekin. Haren esanetan euskarazko hedabideak funtsezkoak dira euskararen garapenean, baina baliabideei dagokienez eskas samar dabilta: "Behar dugu bultzada bat euskarak berak ere behar duen bezala. Hedabideetarako poza euskararen poza litzateke".



**Inazio Arregiri erreleboa hartuta, Goienako zuzendari nagusi zara urritik. Nola jaso duzu izendapena?**

Erronka moduan. Lehenengo aldia da Goienako langile bazkide bat zuzendari nagusi dena. Oraindik goiztxo da horrek zer esan gura duen asmatzeko, baina pentsatzen dut igarriko dela hurrengo urteetan kooperatiba eredu honetan asmatu genuela esateko beste. Pozik nago izendapena kontrako iritzirik gabe hartu zuelako errektore kontseiluak eta lankideen babesa jaso dudalako. Orain taldea indartu eta denok batera lan egin beharko dugu Goiena errealitate sendo izan dadin.

**Zein da une honetan zure eta Goienaren erronka nagusia?**

Goienaren erronkak dira garrantzitsuak momentu honetan, ez nireak. Nireak maila pertsonalagoak ditut kokatuak,

etxean. Hori bai, niretzako, Goiena, transformazio pertsonalerako gune bat ere izan da. Goienan, hala ere, bazkide bat gehiago naiz, talde on bateko parte. Pertsona osatutako enpresa honetako erronka izango dira: Teknologia berriak, berrikuntza, enpresaren egiteko soziala, eraginkortasuna, aurrean egotea... Berrian irakurri nion Pello Lizarralderi "Neure buruari begira minutu bat baino gehiago ez dut pasatuko. Neure burua hurrengo urratsean dago" eta gustatu zitzaidan. Goienak, eta euskarazko hedabideok hurrengo urratsean egon behar dugu euskal komunitateari zerbitzu ona emateko. Euskararen esparrua zabaltzea da gure egitekoa. Gure helburua etekin soziala da. Ez da ez politikoa, ez ekonomikoa. Ez gara diruz aberastuko, pentsa, gure enpresa irabazi asmorik gabeko kooperatiba da.

Bestetik, gure erronka nagusietakoa da kazetaritza parte hartzailea egitea. Hiperlokaltasuna izango da gakoetako bat eta horretarako kazetari dinamizatzailerak izango dira hurrengo urratsa, ondo bidean. Hedabideak debagoiendarekin batera egiteko baliabideak jartzea, informatzaile izan gura duenarentako gero eta leku gehiago uztea eta komunitatetik komunitatearendako hedabideak egitea.

**Aspaldian hedabide tradizionalak krisian sartuta daudela entzun dugu. Hori, gainera, azken urteetan krisi ekonomikoa gehitu zaio. Testuinguru horretan, zein da Goienaren egoera? Eta zein bere bidai-orria?**

Denon egoera da nahiko kaxkarra eta denok gaude herritarren sostenguari beharrean. Baina etxeko lanak ere



- HIZKUNTZA AHOLKULARITZA
- EUSKARA PLANAK (enpresa, administrazio eta bestelakoetan)
- EUSKARA PRESTAKUNTZAKO MODULU BEREZIAK
- ITZULPEN ZERBITZUAK



www.emun.com  
www.lantalana.com

# “Euskarazko hedabideok hurrengo urratsean egon behar dugu euskal komunitateari zerbitzu ona emateko”

egitea zegokigula hausnartu genuen eta gehiago eskatu aurretik egin ditugu lanok krisia sumatu genuen une beretik. Gerrikoa estutu dugu eta gure egitekoa denez, efizienteagoak gara orain. Azkeneko urteotan, %23 murriztu da udaletatik jasotzen dugun laguntza, esaterako, baina zerbitzua handitu eta hobetu dugu urte hauetan, digitalera salto telebistan, Interneten eta eskuko telefonoetan aurrean jarri, gida komertziala sakelekoetara pasa, paperean as- tean bi aldiz publikatu... Eta hau dena euskara hutsean eta gertuko informazioa emanez. Aldunditik eta Jaurilaritzatik dioskue ondo gabiltzala eta horrekin konformatu ordez bidea urratzen jarraitu behar dugu.

## Eta, oro har, nola ikusten duzu gaur egun kazetaritza?

Asko aldatu da. Egoerak kazetaritza pausatua eta landua egiteko bide gutxi uzten du. Hala ere, uste dut kazetaritza mota hori izango dela baloratua berriz ere. Kazetari bakoitza marka bat izan beharko da eta bere publikoa irabazi. Ez hedabideen mantxetek bakarrik, kazetari bakoitzak izan beharko du marka sinesgarria eta horretan asko lagundu lezake digitalean egin daitekeen lanak. Kazetari markarako marka digitala garatzea ezinbestekoa izango da.

## Nola irudikatzen duzu Goiena hemendik 10 urtera?

Baneki... hasiberri gara lau urterako plan estrategiko bat egiten eta ideia batzuk ateratzen ari dira. Goiena, hala ere, 10 urte barru egongo da bere beze-

roen ondoan, orain baino gertuago eta eraginkorrago. Gure ikus-entzule eta irakurleek beharrezkotzat jotzen dute egiten duguna eta hori horrela den bitartean serio egin beharko dugu lan, erleen pare. Egongo garen lekua horrexek erakutsiko du, egindako lanak.

## Euskal hedabideen elkarlana bideratzeko HEKIMEN sortu berri duzue, eta zerrorri zara presidente. Zertarako sortu da proiektua? Zein helbururekin?

Euskal hedabideen elkarlana bideratzera dator HEKIMEN, euskararen hitzun komunitateak behar duen eremu komunikatibo sendoa garatzera. Ehunka mila pertsonetara heltzen gara euskarazko herri komunikabideok eta horrek duen garrantziaz jabetuta ahots bateratu bat ere behar dugu. Ez editorialki bateratua, bakoitzak bere estiloak eta egiteko moduak baititu zorionez. Behar dugu, hala ere, gizartearen aurrean agertzeko mezu bateratua, instituzioen aurrean interlokuzio iraunkorra, gure jarduna neurtuko duen behatokia sortzea, inbertsioak egitea teknologia berrietan, beste hizkuntzetako esperientziak aztertu eta arrakasta kasuak gurera ekartzea... kezka antzerakoak ditugu eta bakarka baino elkarrekin hobeto egingo dugu lan.

## Hizkuntza txikian aritzeak nola eragiten die komunikabideei?

Gehiago interesatzen zait hedabideek hizkuntzari nola eragiten dien esatea jakinekoea baita hizkuntza ez hegemonikootan hedabidegintzan jardutea penetarako dela. Eta gu pozetarako gaude, ez penetarako. Administrazioan makina

bat lan on egin da, berdin hezkuntzan... orain hedabideetan egitea tokatzen dela ez dut zalantzarik, izan ere funtsezkoak dira hizkuntza garapenean eta baliabideei dagokionez eskas xamar gabiltza. Behar dugu bultzada bat euskarak berak ere behar duen bezala. Hedabideetarako poza euskararen poza litzateke.

## Garai batean, militantzian oinarritzen ziren euskarazko herri aldizkari gehienak. Gaur egun zein da ereduak? Jasangarria da?

Dudarik ez, lan talde profesionala izateak asko laguntzen du eta hor daude datuak. Orain dela 10 urte baino askoz eraginkorragoak gara eta liderrak hainbat esparrutan. Hala ere, hau ez da lortzen profesionalizatuta bakarrik, honetarako ezinbestekoa da proiektuan sinesten dutenen lana. Gure kolaboratzaileak, bezeroak, irakurleak, telebistara elkarrizketatuak izateko etortzen diren lagunak... denek egiten dute esfortzua eta hori ordainezina da. Berezi ki aipatu gura nituzke Goiena klubeko bazkideak, oso, oso garrantzitsuak dira gure proiektuan eta sekula ezingo diegu nahikoa eskertu. Bestetik, kazetari gintzak badu militantziaz ere. Ez da zortzi ordu lan egin eta etxera joanda deskonektatu daitekeen ofizio bat, zoritxarrerako zein zorionerako. Gure lan taldea horren jakitun da eta horrela ateratzen ditugu hainbat proiektu aurrera, konpromiso soziala dugulako enpresarialaz gain.

Goiena Komunikazio Taldeak BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA “Zerbitzua eta lana euskaraz” maila du.

# BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN ELKARTEA HAUSNARKETA PROZESUAN SARTU DA



Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek 2013ko urtariletik ekainera bitartean Plan Estrategikoa (2013-2015) zehaztuko du. Proiektu honen bidez Ziurtagiriaren Elkartearen norabidea behar bezala finkatzeko eta garatzeko urratsak zehaztu nahi dira.

Kudeaketa planaren definizioa ez da hutsetik abiatuko. Bere garaian “Ziurtagiriaren Elkartearen estrategia, 2009-2012” onartu zen, elkartearen misio, balio eta ikuspegia definituz. Oinarri hori hartuta, azkeneko plana osatzeko aintzat hartutako egoeraren azterketa zertan aldatu den aztertuko da,

batetik. Bestetik, Ziurtagiriaren Elkartek aurrera begira ezarrita dituen helburu, ildo eta proiektu nagusietan zer-nolako aldaketak egin behar diren aztertuko da.

Prozesua gidatzeko talde eragilea sortu da. Bertan, Rober Gutiérrez Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendaria, bi teknikari, Zuzendaritza Batzordeko bi kidek eta aholkulari batek hartzen dute parte.

Talde eragilearen eginkizuna bilerak dinamizatzea eta jasotako ekarpenak biltzea izango da. Erabiliko den metodologia, berriz, hausnarketarena izango da. Saio horietan kreatibitate eta berrikuntza tresnak erabiliko dira, baita dinamika parte hartzaileak. Helburua da saio operatiboak eta emankorrak lortzea.

## Ekarpenak egiteko aukera

Ziurtagiriaren Elkartearen Plan Estrategikoa (2013-2015) garatu ahal izateko, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek interes taldeak identifikatu ditu eta hausnarketa prozesuan parte hartzera gonbidatu ditu.

Interes taldeak ugariak dira: ziurtagiria daukaten entitateak, zuzendaritza taldea, aholkularitza sektorean ari diren enpresak, administrazioak edo Elkartean bertan lanean ari diren pertsonak. Bilera-egutegia zehaztuta dago, eta bilera horietara gonbidatuko dituzte. Hala ere, ekarpenak egiteko bestelako aukerak badirela jakinarazi dute Ziurtagiriaren Elkartetik: blogaren bidez edo [info@baieuskarari.org](mailto:info@baieuskarari.org) posta helbidera idatziz.

**bidera**  
zerbitzuak

Banaketa-Komunikazioa  
Itzulpenak-Aholkularitza  
Publizitatea-Dei zentroa



**berria**  
taldea

## ZIURTAGIRI BERRIAK GORANTZ

Azken hilabeteetan 23 enpresa berrik eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria. Horien artean daude **Amenabar** enpresa edota Euskal Herria Esnea Kooperatiba. “Bidean” maila eskuratu du lehenak eta “Zerbitzua Euskaraz” bigarrenak.

Amenabar enpresak 1981ean eman zituen bere lehen urratsak eraikuntzaren sektorean, urte horretan fundatu baitzen. Ordutik, eta jarduera-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Errioxa, Madril, Malaga, Kantabria eta Mallorca dituela, era guztietako obrak egiten ditu, publikoak zein pribatuak, honako alorretan: eraikitze- eta urbanizatzeko lanak, industrialdeak, kirol-eremuak, eraikinen eta monumentuen zaharberritzea, bai eta etxebizitzak eta obra zibila ere.

“Aurrerantz ez doana, atzerantz omen doa”, horixe da bere lema.

Bizkaiko Karrantza Araneke **Euskal Herria Esnean** kooperatiba berriz, gaur egun aktiboki lanean ari diren hainbat baserritarrek osatu dute, euren sektoreak bizi duen egoera latzari aurre egiteko. Proiektu berri hau baserritarren berdintasunean, ekonomia justuagoan eta ekologian oinarritzen da.

Horiez gain, Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu berri duten enpresen artean daude **Mila Kolore**, **Nura Kooperatiba**, **Elirale Konpainia**, **Uhin Energia eta Ingurumea**, **Lizarrako Etxe-berria naturdenda**, **Ecofestes irtenbide ekologikoak**, **Arotzgi**, **Mila Kolore**, **Ikaspilota Elkarte**,



**Naturally Bilbo** edota **Ikasmin Ikasketa Zentroa** ere. “Zerbitzua Euskaraz” maila eskuratu dute horiek guztiek. **Anim’aktion** aisialdi enpresak, **Uhaina Surf Eskola**, **Tantatik-ek**, **Nuevo Futurok**, **Arruti Ark-ek** eta **Urbycolan-ek** berriz, “Bidean” maila eskuratu dute. **Bilbo Zaharra Euskaltegiak**, berriz, “Zerbitzua eta lana euskaraz” maila gorena lortu du.

## LAZARRAGA SARIAK BANATU DIRA BIGARREN ALDIZ



Arabako Foru Aldundiak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkar-teak Arabako lau entitate eta pertsona bat saritu zituzten euren lan ingurunean euskara txertatzeko aurrera eramandako ekimenengatik, azaroaren 30ean Gasteizko Bibat museoan egin zen Lazarraga Sarien bigarren banaketa-ekitaldian.

Guztira 51 hautagai aurkeztu ziren bost kategoriatan Lazarraga Sarien bigarren ediziora, eta horien artean 15 finalista iritsi ziren banaketa-ekitaldira. Epaimahaiak horrela erabakita, hauexek dira Lazarraga Sarien bigarren edizioko irabazleak: Abel Enbeita bertsolaria, Cuadrabus garraio enpresa, Gome-tegui bulego teknikoa, Assa Ikastola eta Villa Lucia ardandegia.



Leitzaran Grafikak, S.L.  
Martin Ugaldes Kultur Parkea  
20140 Andoain (Gipuzkoa)  
tel: 943 303510 - fax: 943 593067



- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimak



- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koadernaketa
- Prozesu integrala



ziurtagiriaren **elkartea**



[baieuskarari.org](http://baieuskarari.org)



[@baieuskarari](https://twitter.com/baieuskarari)



[www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria](https://www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria)



[www.baisarean.org](http://www.baisarean.org)

urrats biziak

